

A.- Proiektuaren edukia

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1 Heziberri 2020 planera egokituz ikasleen kompetentzia digitala garatzeko beharrari erantzun.

Heziberri 2020 Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak gure hezkuntza-sistema hobetzeko plana da. Planak Europako esparruan hezkuntza eta prestakuntzari buruz 2020rako finkatu diren ildo estrategikoak eta euskal hezkuntzak dituen berariazko erronkak batu nahi ditu, sistemaren bikaintasunerantz pausu sendoak emateko eta bidezkoa, kohesionatua eta aktiboa den gizarte bat lortzeko.

Plan honetan zeharkako kompetentzia bezalaxe, kompetentzia digitala dago: **“Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia”**, hots, hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

Gure zentrua beti prest egon da teknologien erabilpena eta integrazioa aurrera eramateko. Holantxe bete du ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, administrazio prozesuan, informazio eta komunikaziorako prozesuetan ere. Bide honetatik jarraitzeko asmoz, Sare_ hezkuntza gelan oso bide egokia iruditzen zaigu prozesu teknologiko hau sendotzeko eta hobetzeko. Gure lehenengo helburua ikasleen kompetentzia digitala garatzea izanez.

1.2 KUKULLAGA LHIko SARE_ HEZKUNTZA GELAN proiektuari jarraipena ematea.

Gure zentrua Etxebarrin kokatuta dago; herri honetan 2 urtetik 18 urteetara dagoen hezkuntza eskaintza bi zentrutan banatuta aurki dezakegu: bata Lehenengo Hezkuntzakoa, Kukullaga LHI, eta bestea Bigarren Hezkuntzakoa, Etxebarri BHI. Kukullaga zentruak SARE_ HEZKUNTZA GELAN proiektuan murgilduta daramatza azken bi urteak. Hori dela eta, ezinbestekoa iruditzen zaigu, herriko proiektu honi jarraipena ematea, herrian Hezkuntza eskaintza integrala izan dadin eta ikasleek teknologia berriek ematen dituzten abantailaei etekina atera ahal izateko. Beste gauza batzuen artean, Kukullaga eskolan 4. 5. eta 6. mailan dauden ikasleek Sare_ hezkuntzan sartuta egoteagatik, chromebook gailuak erosi egin dituzte eta horri ez diote baliabide horren merezi duen etekina aterako datozen ikasturteetan Etxebarriko institutura heltzen direnean aipatutako proiektuari jarraipena ematen ez badiogu.

1.3 ETXEBARRI BHIak INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN eremuan izandako ibilbideari jarraipena ematea.

Gure ikastetxeak 2014-15 ikasturtean IKT Heldutasun Ereduko ertaineko maila lortu zuen, ebaluazioa gainditu eta gero. Honek ahalegin handia eskatu zigun, zentruko esparru guztietan metodo eta egiteko era eskatzen zuen aldaketekin.

Tarte honetan lorpen nabargarriak lortu ditugu. Hauen artean aipagarrienak proiektu honetako 5. puntuan zehazten dira.

Guzti horregatik etxebarri BH ikastetxeak Sare_ Hezkuntza Gelan proiektuaren aldeko apustua egiten dugu eta honako proiektu hau aurkezten dugu.

2. HELBURUAK:

Dealdian agertzen diren helburuak:

1. Teknologia, material, metodologia eta baliabide digitalen erabilera bultzatzea geletan irakasteko eta ikasteko prozesuan.
2. Irakasteko eta ikasteko prozesuan, indartzea material eta baliabide digitalen elaborazioa, baita geletan haiek erabiltzea ere. Materialak sarean eskuragarri izango direlarik.
3. Metodologia aldaketarako ikasturteetan beharko den prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa ematea.

Etxebarri BHI ikastetxean gehitu egingo ditugun helburuak:

4. Material, metodologia eta baliabide digitalak erabiliz ikasleen integrazioa bultzatzea, horrela haien arteko lankidetzak suspertuz bizikidetzak giro baikorragoa lortu.
5. Material, metodologia eta baliabide digitalak ikasleen emaitzak hobetzeko tresna izatea bultzatu.

3. IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUAN DUEN INPLIKAZIOA ETA PRESENTZIA

Ikastetxeko Hezkuntza Plana idaztea da gure zuzendaritza proiektuaren helburuetako bat. Proiektu hori aurrera eramateko beraz, lau urteko epea dugu. 2014- 2015 ikasturtean eman genituen lehen pausuak ekimen hori aurrera ateratze asmoz. 2015-16 ikasturtean plana garatu dugu eta bukatzeaz dago 2016-2017 ikasturtean ikastetxeko OMRari onartzeko proposatuko diogun zirriborroa.

Honako era honetan agertzen da Etxebarriko ikastetxeko behin behineko hezkuntza proiektuarekin lortura:

Gure ikasleak DBH amaitzean digitalki kompetenteak izatea nahi dugu. Horrela Heziberri 2020 dekretuan agertzen den ikasleen irteera profilari erantzuten zaio.

Hori metodologia atalean era honetan gauzatzen da:

- Kompetentzia digitalaren garapena
- Hezkuntza inklusiboa bermatzeko baliabide metodologiko bezala IKTak erabiltzea.
- IKT komunikazio-teknologiaren berrikuntzen erabilera bultzatzea ikaste irakaste prozesuan, barneko eta kanpoko komunikazioetan.

4. HEZKUNTZA DIGITALAREN METODOLOGIA PEDAGOGIKOA, IKASTETXE-, IKASGELA-ETA IKASLE-MAILAN

- a) Honako aplikazioak erabiliko dira: Classroom, drive, googleko programak...
- b) Gailuak: Chromebook-ak eta Eskola 2.0ko ordenagailuak.
- c) Liburu digitalen erabilera bultzatuko da: Ingelerera, Matematika, Euskara, Gizarte, Lengua eta Teknologia arloetan erosi eta erabiliko dira

Web-ean dauden beste hainbeste baliabide digitalak ere erabiliko dira klasean zein etxeetan.

Baliabide digitaleen moldaketan eta sorketan oinarrituko gara.

d) Metodologia oinarritzakoa honako hau da: proiektu bidezko lanketa bai taldeka bai banaka aurrean aipatutako programak eta baliabideak erabiltzeak asko errazten dutelako lan era hori.

e) kompetentzien lanketa: Arloetan lantzen diren edukien bidez ikasleek kompetentzia digitala eskuratzea dugu helburu nagusia. **Ikus 1. Eranskina.**

5. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA TEKNOLOGIKO ETA PEDAGOGIKORAKO JARDUEREN PLANGINTZA

Gure zentruko irakasleen maila digitala desberdina da, diagnosiaren azterketaren ondoren ikusi dugunez formakuntza guztientzako balioagarria planteatu dugu. Norbera bere abiaduran proiektuan parte hartzeko aukera emanez.

2016/17 ikasturteko formakuntza planean ardura berezia emango zaio, alde batetik, erabiltzen ditugun, GOOGLE APPSei gaineko formakuntza eginez eta bestetik Chromebook delakoan erabileari buruzko formakuntza eskainiz irakasle zein gurasoentzako.

Prestakuntza jarduerak kanpoko eragile batekin (Berritzeguneko aholkulariak, Arrigorriagako IKT aditua) adostea aurreikusten da, ikasturteko lehen hiruhilabeteetan gauzatuko direlarik, 14-16h-ko ikastaroetan, ondoren mintegika urtero irakasleok bete behar ditugun formakuntzako 35 orduak bete arte falta diren saioak materialak sortu edota moldatzen emago ditugu.

Aurretik planteatutako formakuntza nahiko ez dela ikusten badugu, programatutako ikastaroaren ezaugarriak moldatu egingo ditugu (ordu kopurua, edukiak...).

Programatutako formakuntza 2016-2017 ikasturterako izango da. Horren hausnarketa eta memoria egiten ditugunean adostu egingo dugu 2017- 2018 ikasturteko formakuntza zein izango den nabaritu ditugun beharrezan araberak.

Formakuntza gurasoei eta irakasleei zuzendua izango da eta edukiak **2. Eranskinean** ikus ditzakezue.

Formakuntza hau honako eran sartuko dugu Ikastetxeko Urteko planean dagokionean, 2016ko urriaren bukaeran, honako txantiloia betez:

Prestakuntza eta garapen profesionala

Ikastetxearen prestakuntza proiektu edota ekintzak [deialdi ezberdinen barruan]

CHROMEBOOKEN ERABILERA ETA AUKERAK	2016- 2017 Iraila
Gogle drive eta Calendar	2016- 2017 Lehen Hiruhilekoa
Kalkulu orriak	2016- 2017 Lehen Hiruhilekoa
Google Classroom	2016- 2017 Lehen Hiruhilekoa
Google sites	2016- 2017 Lehen Hiruhilekoa
Produktu digital ezberdinen sorketa eta partekatzea	2016- 2017 Bigarren eta Hirugarren Hiruhilekoa

6. ZEHAZTAPENA, KOORDINAZIORAKO PROZEDURAREN GARAPENA, PROIEKTUAREN JARRAIPENA ETA EMAITZEN EBALUAZIOA

A. KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA

Proiektua koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko ekintzak:

- Koordinazio taldea sortzea. Talde horretan lehen mailan baliabide digitalak erabiltzeko konpromezua hartu duten irakasle guztiak parte hartuko dute, IKTko arduradunak eta zuzendariak. Hiruhilabeteko proiektuaren balorazio orokorra egingo du koordinazio talde honek.
- Zuzendaritza taldeak ahalbidetuko du koordinazio bilerak egitea, horretarako irakasleen ordutegietan ordu fat finkatuko du 1. Mailan sarehezkuntzan parte hartzen duten irakasleeentzako. 2017-18 ikasturtean 2. Mailako irakasleen ordutegietan ere kokatuko da.
- Batzarrak astero egingo dituzte irakaste prozesuan sortzen diren eguneroko arazoei aurre egiteko. Bileran huetan proposamenak aztertuko dira. IKTko arduraduna hamabostero Berritzegunera joaten da koordinazio bileretara. Bileran huetan beste zentruetako esperientziak, arazoak eta proposamenak aurkezten dira. Hau den dena institutuko koordinazio saioetara luzatuko da.
- Irakasle guztiak, familiek eta ikasleek proiektuaren ebaluazioa egingo dute. 2017ko eta 2018ko maiatzean.
- Mintegiko koordinazio ordua ere zuzendaritza taldeak ahalbidetuko du. Mintegietan ondoko lana egingo dute:
 - Koordinazio eta jarraipena
 - Materialak aztertu eta egokitu.
 - Materialak argitaratu site desberdinetan.

B. EMAITZEEN EBALUAZIOA

Gure proiektuaren ebaluazioa egiteko asmoz, 1. Eranskinetako taulan agertzen diren 13 adierazleak kontuan hartuko ditugu. Haien betetze maila % 60 eta % 100 bitartekoa da eta geuk proposatutako helburu guztiei erreferentzia egiten die.

IKUS 3 . ERANSKINA

7. LEHENDIK IZANDAKO ESPERIENTZIA BERRITZAILEAK, HEZKUNTZA DIGITALAREN PROIEKTUETAN

7.1.- IKT ibilbidea:

Irakasle guztiek teknologia berrien inguruko formazioa jaso dute zentruan behar diren jarduerak aurrera eramanez ahal izateko.

- Irakasle guztiek programazioak eta memoriak formatu digital editagarrian aurkezten dituzte. Hauek eskuragai daude ikastetxeko kide guztientzako, bai barruko sarean, bai zentruko web orrian.
- Posta elektronikoa ikasleekiko eta gurasoekiko irakasleen % 80k baino gehiago erabiltzen dute.
- Baliabide digitalak, oinarrizko baliabide teknologikoak, multimediak, eta ikasteko ingurune birtualak irakasleen % 60k baino gehiago erabiltzen dituzte.
- Irakasleen notak, hutsegiteak, espedienteak, irakasleen ordutegiak, zaintzak, gela eta baliabideen erreserbak, aurrere matrikula eta matrikula, mantenua eta kudeaketa ekonomikoa tresna telematikoen bidez egiten dira.
- Ebaluazioen emaitzak eta estatistikak era digitalean gordetzen dira. Datu guzti hauek lortzeko txantiloiak driven aurkitzen dituzte irakasleek.
- PREEko irakasleen datuak eta txostenak driven aurkitzen dira. Irakasleek lan egin dezakete on line eta batera.
- Pendienteen datuak eta txostenak ere driven daude. Alde batetik irakasle guztiek erabil ditzakete datuak eta bete txostenak. Beste aldetik, Hauspoak proiektuak baimentzen gaitu pendienteei arratsalde laguntza eman ahal ematea.
- Irakasle, ikasle eta familietako-harrerako dokumentazioa era digitalizatuta dago eta web orrian edota intranetean topa daiteke.
- Orientazioko dokumentazioa eta plan tutoriala digitalizatuta dago eta intranetean edota web orrian argitaratuta dago.
- Ikastetxeko oinarrizko dokumentazioa intranetean eta web orrian aurkitzen dira: Urteko plana, Heziketa-proiektua, Hobekuntza plana, Aniztasunerako plana, Hauspoa, Bizikidetzaren plana.....
- Ikastetxeko barneko komunikazioa posta elektronikoren bitartez egiten da.
- Ikastetxeko kanpoko komunikazioa posta elektronikoko, web orri edo sms-en bitartez egiten da.
- Ikastetxeko instalazio informatikoak aske daude ikasleentzako eta zentruko beste kideentzako. Goizez ikasleentzako eta arratsaldez kide guztientzako Hauspoa proiektuari esker.
- Gurasoek web orrialdean irakasleen azterketen datak eta beste berri garrantzitsuak kontsulta ditzakete.

7.2-Informatika gela berria: IKTko arduradunaren pean informatika gela berri bat sortu da 25 ordenagailuekin. Eskola 2.0ko ordenagailuak dira eta Ubuntu sistema eragilea sartu zaie.

7.3-Irakasleen formakuntza

-Hasierako Classroomno formakuntza 2015-16 ikasturtean

-PARTEKATU IKASIZ: 2014-15 ikasturtean proiektua parte hartu zen Arrigorriagako ikastetxearen gidaritzapean.

7.4-gailuak: chromebooka :

1. mailan baliabide digitalak erabiliz klaseak emango dituzten irakasle guztieei chromebooka banandu zaie 2015-16 ikasturtearen bukaeran gailue horiekin lan egiteko ohitura har dezaten.

B.- ETXEBARRI BHIren KONPROMISOA ETA SARE _HEZKUNTZA GELAN PROIEKTUAREN INPAKTUA.

1.- HEZKUNTZA-TALDEAK EDO ILDOAK, EMANDAKO IKASGAIK ETA PROIEKTUAN PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK.

Ikasturte horretan lehen mailan baliabide digitalak gelan erabiltzeko konpromezua hartuko dugu, ikasleak arituko direlarik. Horretaz gain, eta zentruko partehartzea bermatzeko, zeharkako irakasgai bik ere proiektuan parte hartuko dute.(Euskara eta Teknologia),oso garrantzitzua iruditzen zaigulako zentru osoak parte hartzea edonola.

Lehen mailako 1A, 1B 1C eta 1D taldeetan Euskara, Matematika, Teknologia, Ingelesa , Gizarte eta Lenguaiako arloetan gailu elektronikoak erabiltzeko konpromezua hartuko da. Talde hauetan "lehen mailako "irakasle taldeak parte -hartuko duelarik.Klase hauetan baliabide digitalak (liburu digitalak, material digitalak, siteak, wikiak,blogak, errealitate birtuala, bideoak, sortutako materialak, denbora-mapak...) erabiliko dira.

Datozen ikasturteetarako beste mailetara zabaltzeko helburua daukagu.Aurten DBHko 1. mailan egongo diren ikasleak 2017-18 ikasturtean DBHko 2. maila egongo dira eta ikasturte horretan ikasle hauek ere baliabide digitalak erabiliko dituzte.

LEHEN ZIKLOA

2017-18 Ikasturtean irakasgai hauei jarraipena emango zaie.

IRAKASGAI	IRAKASLEA	LIBURU DIGITALA
MATEMATIKA	Cristina Etxebarrieta Arrate Aldaiturriaga	ANAYA-HARITZA
GIZARTE	Miren Idirin	SANTILLANA
LENGUA	Begoña Rivas	SANTILLANA
EUSKARA	Estibaliz Astigarraga Eduarne Mendizabal	IBAI BI PROIEKTUA IBAZABAL
INGELERA	Maria Jose Rey	BURLINGTON
TEKNOLOGIA	Iñigo Iturralde Bergoai Meaza	TEKNO 12-18 PROIEKTUA
Liburu digitala soportea nagusia izango da irakasgai guzti hauetan. Beste irakasgaietan behintzak hiruhileko bakoitzeko unitate didaktiko bat landuko da baliabide digitalak erabiliz.		

BIGARREN ZIKLOA

❖ TEKNOLOGIA

❖ EUSKARA

2016-17 ETA 2017-18 Ikasturteetan maila guztietan.

2.-HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN PROIEKTUA ZABALTZEKO ETA FAMILIEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO AURREIKUSITAKO NEURRIAK

- Proiektua ikastetxeko web orrian argitaratuko da:

www.etxebarribhi.org

- Dena den, gurasoeren elkartearekin hilabetean behin biltzen gara normalean, eta era hau oso egokia da gurasoak proiektuaren jakinaren gainean egoteko.
- 2016/17 ikasturtean gurasoek gmail, calendar eta drive buruzko formakuntza ikastaro bat eskeinitu zaie. Dagoeneko ikasturte hasierako gurasoen harreran gmailen kontuen berri ematen da gurasoek gmailak banatuz eta hauen erabilera sustatuz. Formakuntza honetan ere beraien seme-alabeen chromebook-en funtzionamendua azalduko zaie.
- Gurasoek ere ikasturte hasieran ere Chromebook-en erabilera sustatzeko aholkua egingo zaie, eta gailua ez dutenei eskuratzeko gomendioa ere. Ikastaro guzti hauek arratsaldeko orduetan emango dira, HAUSPOA proiektuaren barnean, proiektu honen arima zentrua zabalik mantentzea da ordu gehiagotan eta ikas- komunitateko kide guztieei. Arratsaldez gurasoek arazo gutxiago edukitzen dute zentzura etortzeko eta formakuntza jasotzeko. Formakuntza honetaz zentrua arduratuko da.

Aurrean esandakoa AMPAkoekin adostuta daukagu eta beraiek ere parte hartuko dute antolaketan eta kasu batzuetan laguntzen. Guraso kopurua izanez gero, deialdi bat baino gehiago antolatuko dugu.

3.PARTE-HARTZEKO PROIEKTUAREN EDUKIAK BESTE TALDE EDO IRAKASLE BATZUEI TRASFERITZEKO AURREIKUSPENA

2016/17 Ikasturtean lehen mailako taldeen esperientzia 2017/18 ikasturtean bigarren mailara eramatea aurreikusten da, ikasleak gailuen jabe izateak horretara garamatza eta lehen mailara etorriko direnak ere egoera berean egongo bait dira. Proiektu honetan irakasleek parte hartzeko abiadura desberdinak egongo direnez, bata aktibagoa klaseetan baliabide digitalak erabiliz eta bestea formakuntza eta materialak sortzen, bi irakasle talde hauen elkar trukaketa egongo da koordinazio saioetan egindako lana azaltzeko asmoz; batzuk klaseetan egindakoa kontatzeko eta besteek sortutako materialak aurkezteko. Saio hauetan zentruen beharrak aztertuko dira, prozesua ondo joateko.

Oso garrantzi handia ematen diogu sortutako material digitalak eta pedagogikoak beste irakasle taldeekin konpartitzeari eta prest gaude trukaketa hau egiteko. Berritzegunean 15ero IKTko arduradunen eta zuzendarien bilerak egiten dira, oso esparru egokia izan daiteke aurrean aipatutakoa aurrera eramateko.

4.-BESTE ERAGILE EDO IKASTETXEEI ESPERIENTZIATIK ERATORRITAKO EZAGUERAK TRASFERITZEKO EDO PRESTAKUNTZA EMATEKO AURREIKUSPENA

Gure ikastetxea prest egongo litzateke beste zentru batzuri laguntzeko Sarehezkuntzan sartzeko prozesuan. Gure esperientzia azaltzeko edota formakuntza emoteko, gurekin egingo duten moduan. Hitzarmen bat daukagu Arrigorriaga institutuarekin formakuntza emateko datorren kurtsoan. Kukuiaga eskolako Sarehezkuntzako arduradunarekin batzarrak egin ditugu beraien proiektua ezagutzeko gero geure zentruak praktikan jartzeko (kontuan harturik bere ikasleak datorren kurtsoan etorriko zaizkigula chromebook batekin!).

Laguntza guztiak ondo etorriak dira proiektu berri batean sartzen zarenean, horregatik gu ere prest gaude gure esperientzia beste zentruetara zabaltzeko, eta horrela nahi badute, formakuntza adostua emateko.

Gure esperientzia zabaltzeko konpromezua dugu bai zuzendaritza taldeak, bai IKTko arduradunak eta sarehezkuntzako proiektuko koordinatzailea izango diren irakasleak.

5. KRONOGRAMA

PROIEKTUA AURKEZTU AURRETIK

	EKINTZA	DATA
1	klaustroan proiektuaren zirriborroa aurkeztu irakasleek onartzeko	2016ko martxoaren 2an
2	Diagnostikoa egiteko mintegikako galdeketa	Martxoaren 7tik 11ra
3	Galdeketa emaitzak argitratzea	martxoaren 14a
4	Kukullaga ikastetxearekin koordinazio batzarrak	Martxoaren 9a Apirilaren 15a
5	Irakasleentzako formakuntza diseinatzea	Apirila
6	Guraso elkartearekin batzarra proiektua aurkezteko	Apirila
7	Sortuko diren material digitalak aurreikustea mintegietan	Apirila
8	Erabiliko diren liburu digitalak aukeratzea mintegietan	Maiatzaren 2an

PROIEKTUA AURKEZTU ONDOREN

	EKINTZA	DATA
1	Irakasleentzako Chromebookak erostea	2015-16ko Maiatzean
2	Irakasleentzako oinarrizko formakuntza (gmaila, drive, calendar, site...)	2016-17ko Irailaren 5 eta 7 bitartean
3	Ikasle berrientzako oinarrizko formakuntza	2016-17ko Irailean 2 edo 3. astean
4	Gurasoentzako oinarrizko formakuntza	2016-17ko Urrian
6	Irakasleentzako formakuntza (Chromebook....)	2016-17ko lehen hiruhilekoa
7	Gurasoentzako formakuntza (Chromebook....)	2016-17ko lehen

		hiruhilekoa
8	Bigarren gela bat kableatzea	2016-17ko lehen hiruhilekoa
9	Ikasleentzako Chromebookak erostea	2016-17ko lehen hiruhilekoa
10	Material digitalak egokitu edota sortu	2016-17ko eta 2017-18ko Iraila- Ekaina.

1.ERANSKINA:IKASLEEN GAITASUNAK

Ikasleek lortu beharreko gaitasun digitalak.

- Oinarrizko hardware- baliabideak maneiatzea.
- IKTak erabiltzea testu-informazioa eta zenbakizko informazioa bilatu, aukeratu eta prozesatzeko horrela mundu erreala ulertu, arakatu eta moldatu.
- IKTak erabiltzea beste pertsona batzuekin komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko
- IKT baliabideak erabiliz sortzaileak eta berritzaileak izatea
- Informazioaren pribatasuna aintzat hartzea.
- Jabetza intelektuala balioestea.
- Komunikazio elektronikoko estiloak eta moduak errespetatzea.

2.ERANSKINA :FORMAKUNTZA

2016 2017 ikasturtea

IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

IKASTAROAREN IZENA: **GOOGLE APPS ETA BALIABIDEAK (MAILA ARRERATUA)**

DENBORALIZAZIOA: 14-16 ORDU ETA 7-8 EGUN (HAUSPOA ARRATSALDETAN)

TOKIA: IKASTETXEA

ARDURADUNA: Berritzeguneko aholkulariak edota Arrigorriagako IKT aditua.

Landuko diren kompetentziak:

- Kudeaketa arloan:
- IKTen erabilgarritasuna ulertzea eta praktikara eramatea askotariko aukerak ematen baitituzte: ikasleen datuak erregistratzea (kalifikazioak, ez-bertaratzeak) batez bestekoak kalkulatzeko, ikasleen datuak aztertzeke grafiko matematikoak eta estatistikoak egitea errendimendua alderatzeko.
- IKTen erabiltzea kideekin konektatzeko, lineako ikastaroak egiteko eta adituekin elkarrekintzan jarduteko.
- Interneteko zerbitzuak (weba, sitea, foroa...) trebetasunez erabiltzekideekin ikastetxean eta handik kanpo komunikatzeko eta esperientziak partekatzeko.

- Didaktika eta pedagogia arloan:
- Ikaskuntza- esperientzia jakin batzuk diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea ikasleen interesen, erritmoen, ikasteko moduaren eta trebetasunen arabera lan egin dezaten, eta aldi berean, XXI. menderako trebetasunak sustatu.
- Irakasleak bere diziplinarako espezifikoak diren IKT baliabideen bidezko ikaskuntza sustatzea ikasleen artean.
- Mundu errealeko gaiak arakatzeko edota benetako arazoei irtenbidea ematea ahalbidetzen dituen IKT baliabideak erabiltzea.
- IKTak multimedia material didaktikoak diseinatzeko erabiltzea, besteak beste, erakustaldiak, animazioak, simulazioak eta ariketak diseinatzeko.
- Informazioa, eta batez ere, web informazioa, bilatu eta aztertzeke estrategiak modelatu eta sustatzen dituzten ikaskuntza- esperientziak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea.

EDUKIAK:

1. Google Drive eta Calendar
 - a. Nola antolatu (Mi unidad vs Compartidos conmigo)
 - b. Dokumentu bat bi lekutan nola ikusi
 - c. Historial de revisión
 - d. Nola partekatu dokumentuak
 - e. Google Calendar
 - i. Egutegiak gehitu
 - ii. Nola editatu
 - iii. Nola partekatu
2. Kalkulu orriak
Kalkulu orriaren oinarritzko erabiliera
 1. eragiketak
 2. Koloreak eman
 3. formato condicional
Irakaslearen kuadernoa sortzen kalkulu orri bidez
 1. NOTAK
 2. EGUNEROKOA
- Yet an Other mail Merge
 1. Extensioa instalatu
 2. E-Mailak nola bidali
3. Google Classroom
4. Google Sites
5. Jarduera (8 lan 8 egunetan) : Zelan sortu taldeka produktu digital ezberdinak (ariketa interaktiboak, denbora lerroak, bideoak, audioak, aurkezpenak, QR kodeak, mapa kontzeptualak, argazkiak, posterrak, etab)

IKASTAROAREN IZENA: CROMEBOOK

DENBORALIZAZIOA: 4 ORDU ETA 2 EGUN IRAILEAN EGUTEGIAREN ARABERA

TOKIA: IKASTETXEA

ARDURADUNA: IÑIGO ITURRALDE (IKT ARDURADUNA)

EDUKIAK: CHROMEBOOKEN ERABILERA ETA AUKERAK.

GURASOENTZAKO FORMAKUNTZA

IKASTAROA: "INFORMATIKA GURASOENTZAKO"

DENBORALIZAZIOA: 4 ORDU ETA 2 EGUN

TOKIA: IKASTETXEAN

ARDURADUNA: IÑIGO ITURRALDE (IKT ARDURADUNA)

EDUKIAK: **IKASTETXEKO WEB ORRIA, E MAILA, CROMEBOOK**aren erabilera.

2017- 2018 ikasturteko formakuntza erabakitzeke dago.

Zuzendaritza taldeari garrantzitsua iruditzen zaio aurreko konpetentziak sakontzeko formakuntzari jarraipena ematea. Aldi berean, herritartasun digitalarekin lotutako gaitasunak eskuratzeko formakuntza egokia plantetauko dugu.

Honako hauek izango dira landuko liratezkeen gaitasunak:

- Herritartasun digitalaren arloa:
- Erabilera onargarriko politikak eta arudiak ezagutu errespetatu eta errespetaraztea, datuakdatuak babesteari eta gizabanakoen nortasunari dagokionez, bereziki eskola adineko gazteen kasuan.
- Lizentzaimendu-eskemak (GPL eta CreativeCommons) aplikatzea ikasleen ekoizpenetarako.

3.ERANSKINA

Hurrengo laburpen taulan erabiliko diren ebaluazio adierazleak eta ebaluazio tresnak agertzen dira. Espero den lorpen mailarekin eta dagokien helburu konkretuarekin lotuak:

Helburua	Adierazlea	Betetze maila %	Tresna
1	Lehen mailan aurreikusten diren liburu digital guztiak erabiltzea	100	Liburu maileguen proiektua
1,2	Lehen mailan liburu digitalak eguneroko ikaste irakaste prozesuan erabili dira	60	koordinazio taldearen balorazioa. Proramazio laburrak
1,2	Irakasgaien ebaluazioa egiteko tresnak digitalak dira 1. Mailan	85	koordinazio taldearen balorazioa. Programazio laburrak

	2016-17 eta 2017-18 ikasturtetan		
1,2	Lehen mailako ikasleek Chromebooka dute	85	Bekadunen kopurua
1,2	Lehen mailako irakasleek Chromebooka edo eskola 2.0ko ordenagailua dute	100	fakturak
1,2	DBHko ikasleek gailu digitalak erabiltzen dituzte euskara eta teknologia orduetan programatu bezala	100	koordinazio taldearen balorazioa. Inkestak Proramazio laburrak
4	Ikasle, guraso eta ikasleek sare hezkuntza proiektua ezarri denetik gaztazkak gutxitu direla uste dute	75	Inkestak Neurri zuzentzaileak
4	Ikasle eta irakasleek proiektuarekin ikasleen lankidetzaz bultzatu dela uste dute	75	Inkestak
5	Ikasle, guraso eta irakasleek uste dute proiektuarekin ikastetxeko kalitatea hobetu dela	80	inkestak
5	Ikasle, guraso eta irakasleek uste dute proiektuarekin ikasleen emaitzak hobetu direla	80	inkestak Aktak
3	Guraso eta irakasleek jasotako formakuntza aberasgarria izan dela uste dute	90	Inkesta
3	Programatutako formakuntza saio guztiak egin dira	100	Memoria
2	Irakasleek diseinatutako edo moldatutako material digitalak argitaratu dira	90	sitea

